

BAKEA ala BAKEA...

Azken hilabete hauetan edo aspaldisko huntan, gure arteko solasetan eta trukaketetan gehienik erabiltzen dugun hitzetarik « bakea » dugu.

Nahiz eta hitz bera denek erabili, denentzat erran-nahi edo eduki bera ote du ?

Bitoriano Gandiaga-k, olerki batean, dio « *Bakea, bakea hitza* », « *arriskutsua* », « *ikaragarria* », ez-neutroa, « *nazkantea* », « *alienagarria* » izan daitekeela, eta hunela finitzen du olerkia :

*« Manipulagarria da
onerako, txarrerako,
interesaren erara
erabil daitekeelako. »*

« *Bakea ?... Bainan ez gaude gerlan...* » : hau da gure inguruan ainitzetan entzun dezakegun baieztapen arrunta. Itxuraz zentzuzkoa den baieztapen hunek behartzen gaitu bakeaz dugun ikuspegia eta kontzeptua zehaztera. Nere hausnarketa hazten duten irakurketetarik atera gogoeta zombait helarazi nahi dauzkizuet aldi huntan.

Bakea ez da xoilik gerla-eza, ez eta ere gerlaren kontrarioa edo alderantzia. Bakea gerla-eza bezala definitzeak, bakea ikuskera eta eduki huts, pasibo, osagabe eta urrunkor batera mugatzea da. Bakearen eremua ainitzez zabalagoa da, indarkeriaren eremua gerlarena baino ainitzez zabalagoa delako. Bainan bakea ez da ere indarkeri-eza, bainan bai indarkeriaren kontrarioa edo alderantzia.

« *Bakea ez da hitz bat, jarrera bat baizik* » dio erran zahar anonimo batek. Hau dut azpimarratu nahi artikulu hunen tituluan, buruz-buru jarriz bakea-hitza eta bakea-jarrera.

Bakea **aktibotasuna** da, ez pasibotasuna. Eguneroko elkarrekintza guzietan pratikatzen den egaiamendua da. Besteen elkarrekintza bortitzen behatzaile pasibo gelditzeak, bakea hiltzen du. Pasibo gelditzeak seinale txarra bidaltzen du ; « bortxatzaileak » bortizkeria areagotzera lehiatzen ditu. Printzipio hau Euskal Herriko gaurko egoerari aplikatuz, ez da dudarik « aktiboak » izan behar dugula Parisek eta Madrilek gure eskakizuneri (presoen hurbilketa, preso erien askapena, Parot dotrina ezeztatzea...) eman ihardespeneza « bortitzari » ihardukiz, Legearen aplikapena besterik aldarrikatzen ez dugularik.

Bainan nola iharduki ?

Lehen lehenik, itxura guzien kontra eta traba ororen gaintetik bakea posible dela sinetsiz.

Hortaz konbentziturik, eskatzen segituz. Hortarako, beharrezkoa da kontrapisu gehiengodun bat antolatzea, giza elkarrekintzetan bakea gain-gaintetik jartzen duen jaidura bultzatuz : gisa hortan igurika daiteke « bortxatzaileen » ganik beren jokamoldea alda dezaten, beren baitako hoberena emaiterainokoa.

Esperantzarekin hartzen ditugu Iñigo Urkullu-k egun hauetan (Berria – urtarrilaren 20a) egin deklarapenak : « *Zintzoki diot erraiten den baino gehiago egiten ari dela (presoen) gai horretan, baita Madrilgo gobernuaren aldetik ere, nahiz eta hori gutti izan. Hala nola, joan den astean mugimendu batzuk izan ziren, eta ez dira jakinarazi, eta ezker abertzaleak ere ez du jakinarazi.* » Lehendakari izanik, badakike berak zertaz ari den...

Denbora berean (Berria – urtarrilaren 22a), Lokarri-k dio bake eta elkarbizitza prozesuan aintzina egiteko beharra agerikoa dela. « *Bere erantzunkizuna onartu* » eta urratsak egiteko eskatu dio Espainiako Gobernuari : ETArekin elkarriketa prozesu bati ekiteko, eta espetxe politikan « *beharrezkoak diren aldaketa guziak* » egiteko. ETARI, berriz, desarmatzeari eta desegiteari ekiten ahalegiteko eskatu dio, eta eragindako mina onartzeko urratsak egiteko.

Eta guk, ardura politikorik ez daukagunek, eta preso ez gaudenek, zer egin dezakegu ?

Gure esku dagona obratzera lehiatu, Baionako Foroan errepikatua izan den bezala. Oroz gaintetik norberaren esku dago **bakerako bere barne-jaidura lantzea**. Florence Cassez andereak egin lehen deklarapenetan ez du besterik agertu : « *Errabia, haserrea, herra...dira lehen urtetan bizi izan ditudan sentipenak. Askatzeko beharra neukan. Zazpi urte horiek baliatu ditut barne-lan sakon bat egiteko. Barkatu. Nihaturen buruari barkatu. Jendeeri beren ezjakitea barkatu. Jakingabe jujatzen ninduteneri barkatu. Barkatu dut...* » Barkamena askatzaile...

Bururatzean, gogora datorkit azken urte hauetan ainizetan kantatu izan dugun Andoni Salameroren errepika :

*Bakezaleenak ere gerla baten zama
bere baitan bizirik betiro darama.*

Peio Ospital